



Nekropolitikaren aroa

xa sencillamente
transformar la realidad

Beste batzuk baino gitxiago balio daben biziak

Achille Mbembe Kameruneko filosofoak garatu eban "nekropolitika" kontzeptua kolonia-osteko Afrikaren azterketa egitean. Zera adierazo gura eban: "heriotzaren ekonomia" nagusi dala eta honen bitartez, gobernuan diranek edo agintea dabenek, gobernatzen dabezan alkartean biziaren gainean erabagiteko eskubidea euren dala dinoela. Honan indarkeria, zuzenean ala zeharka, sarritan bera helburutzat hartuta, nork dauan garrantzia eta nork ez, nor dan ordezkagarria eta nor ez zehazteko erabilten da.

Gaur, neurri handi batean, nekropolitikaren aroa bizi dogula esan daikegu, nekropolitika deitutako hori gizartea eta mundua agintearen ideia batean, hau da, badirala balioa daben biziak eta baliorik ez dabenak, oinarritutako politiken bidez antolatzeke eratzat jotzen badogu. Ikuskera horren eraginez, indarkeria erabili daiteke gizarte-ekonomia sistemarentzat baliagarri ez diranak edo agintean irautea galarazoten dabenak desagerrarazoteko. Edo guzti horreek hiltzen izteko, 'soberan' dagozan horreen heriotza dakarren politikak bultzatuz, indarrean dagozan kanon politiko eta ekonomikoentzat errentagarri ez diran persona eta alkarte baztertuakaz gertatzen dan lez: ez dira ez garrantzitsuak, ez eragin handikoak, ez ekoizleak, ez kontsumitzaileak...

Azterketa honen atzean, gaur egungo sistema ekonomiko kapitalista dago, egitura arloan oso bortitza dana, ahalik eta denpora gitxienean, eta eragin daikezan gizartea, ingurumen eta giza kostuen gainetik, aberastasuna metatzea eta irabaziak maximizatzea dalako bere helburua. Gehiengoaren galeren lepotik, gehiengoari ondasun natural, sozial, kultural eta ekonomikoak indarrez ebatsiz eta horreen gozamenetik kanpo itziz, gitxiengoaren irabaziak gehitzean oinarritutako jardunbidea. Holan, personak merkantzia huts bihurtzen dira, elementu sustagarri ala baztergarri. Bizitzaren merkaturatzea da politika ekonomikoaren ardatza, eta honeetatik harago, "kultura" antzeko bihurtu da eta gure pentsatzeko, erlazionatzeko eta bizitzeko eraren sakonakonean txertatu. Frantzisko Aita Santuak salatu dauanez, "bazterkinen ekonomia" da, "hil egiten dauan ekonomia":

Beharbada, errealidadearen deskribapen hau lar alarmatztat jo daiteke, baina azterketa hau gaur egungo eredu batzuetara ezartzea nahikoa da berresteko.



1. Migratzeak bizi arriskuan jarten dau: mugak hiltzaileak dira

Mediterranea da munduko hobi komunik handiena, itsaso horretan 15.000 lagun baino gehiago hil dalako 2014tik aurrera. Beste migrazino-ibilbide batzuetan be hiltzen dira eta miloeka kontatu daitezke euren alkarteetatik kanporatutakoak. Mugak gotorleku militarizatu bihurtzea, hondoratzen diranak bertan behera iztea edo horreei laguntza ukatzea edo laguntzen deutesenak zigortzea, erreskate-ontziei portuak ixtea, oinarritzko eskubideak ukatzea, jazarpena eta kanporaketa helmuga edo korridore diran lurraldeetan, ... horra hor Mendebaldeak ezinbestekotzat jotzen ez dituan personak heriotzara kondenatzen dituan politiken garapenaren gaur egungo adibideak.

Jakin eta ekin: www.harresiakapurtuz.org
www.ongietorrierrefuxiatuak.info
www.itakaescolapios.org



2. Industria eta gastu militarra: gerrarako ekonomia

Armamentu-industriaren irabaziak, sortzen dituan lanpostuak edo gobernuen arteko lankidetzak, gerrarako herriei eta herritar zibilei eraso egiteko armen salmenta justifikatzeko erabilten diranean, prezioa jarten jake bizi batzuei besteen aurrean. Hori gertatzen da, adibidez, gobernu espainiarren eta saudiarraren arteko merkataritza militarerako akordioei eustean, yemendar biktimen bizi interes ekonomiko eta politikoen azpitik jarten dau-eta. Indarkeriari lotutako industria eta merkataritza, legekoa ala legez kanpokoa, da gaur egun be, indarrean dan ekonomia kapitalista honen sektorerik garrantzitsuenetakoa.

Jakin eta ekin: www.centredelas.org
www.ipb.org

3. Bizia merkantzia danean: osasuna eta elikadura negoziua dira

Herrialde txirotuetan, urtean 60 milioi lagun baino gehiago hiltzen da behar baino lehen gizarte-ingurumen eragileen eraginez eta osasun-arreta egokirik ez izatearren. Botiken neurrigabeko prezioa eta botiken patenteen erabilera bidegabea, baliabide publikorik ez izatea eta osasun-sistemen pribatizazioa dira egoera honen arrazoietakoz batzuk. Bitartean, gora egiten dabe industria farmazeutikoaren irabaziek, osasun sistema publiko sendoei eusten detusien herrialdeetako merkatuaren bidez, edo medikuntza pribatua planetako edozein lekutan jadesteko aukera daben herritarren artean. Beste batzuk baino gehiago balio daben biziak. Elikagai-industriaren oligopolioak kontrolatzen dau elikagaien ekoizpena, merkaturatzea eta publizitatea. Laborantza-industria sektoreek elikagai-aniztasun eta aberastasunaren porrota ekarri dabe, gaixotasunak sortuz eta elikadura-subiranotasuna eta segurtasuna deuseztatuz. Bitartean, munduan, 795 milioi lagun inguruk ez dau elikagai nahiko bizimodu osasungarriko. Irabaziak, azken batean, osasunaren eta elikaduraren eta, ondorioz, biziaren gainetik jarten dira.

Jakin eta ekin: www.farmacemosmundi.org :: www.justiciaalimentaria.org :: www.grain.org



4. Kanporatu indarrez ebazteko: irabaziak alkarteen gainetik

Afrikak eta Hego Amerikak ondo dakie indarrez ebazte hori zer dan, azken urteetan era guztietako baliabideak kendu deusiezalako eta hango alkarteak guztiei dagokiezan ondasun barik (ura, lurra, elikagaiak,...) izten ari diralako. Mineralen erauzketak –legezkoa eta legez kanpokoak-, lursailak nekazaritza arloko industria handien eskuetan pilaetzeak edo enpresa horreentzat hesitzeak, multinazionalen sekulako egitasmo energetikoak eraikitzeak, eragin latzak ditu: milaka eta milaka lagun –baita alkarte osoak be- euren lurraldeetatik urtetera derrigortuta dago. Azken urteetan, gainera, indigenen, nekazarien, ingurumen-mobimentuen arteko makina bat buru eta buruzagi hil dabe euren ondasun natural eta kultural honek defendatzearen.

Jakin eta ekin: www.omal.info
www.territoriosendisputa.wordpress.com
www.grupodeestudiosafricanos.org

5. Azken deia:

Kolapso ekosoziala aurrez aurre

Giza jarduerak ekosistemetan itzi daben arrasto esanguratsua dala-eta, oraingo aro geologikoa ordezkatzeko dauanari “Antropozeno” deitzen joko. Izan ere, dalako zirrara horrek, alkarte zientifikoak eta mobimentu ekologistek ohartarazoten daben lez, arriskuan jarten dau lehenengo aldiz bizitzaren iraunkortasuna. Berotze orokorrak, erregai fosilen gehiegizko ustiapenak eta amaierak, arrasto ekologikoak... ondorio larriak dakarrez: basamortutzea, hondamendi naturalen gehikuntza... Eta horregaz batera, milaka gizabanako eta alkarteren kanporatzea eta heriotza. Potentzia batzuek oraintsuko gertaera larriok ukatzen dabezan tesiak defendatzen jarraitzen badabe, gobernuek trantsizino ekosozialari ekiteko konpromisorik hartzen ez badabe, edo produktibismoa eta kontsumismoa sustatzen dabezan politikei jarraipena emoten bajake, bali-teke nekropolitikako kasurik handienaren aurrean aurkitzea: giza biziaren existentzia bera zalantzan jarriko dauana.

Jakin eta ekin: www.ecologistasenaccion.org
<http://scientists.forestry.oregonstate.edu>
<https://ultimallamadamanifiesto.wordpress.com>



Eta ez hori bakarrik: planeta osoan hedatutako feminizidioa, herri eta kultura minorizatuaren sarraskia, hainbat lurraldetako gobernuaren estatuen lekua hartu daben (edo euren onespina daben) delinkuentziatzko egiturak...

Egoera honen aurrean, lehenetsuna da ozen eta argi eta garbi hitz egitea eta biziaren aldeko eta nekropolitika deuseztatze konpromisoa hartzea. Gure biziak, bizi guztiak, ez dira merkantzia eta ez dagoz salgai merkatu kapitalistan eta ez dira dagozanei eusteko zerbitzu be.

“Nekropolitika” ulertzeko irakurgai interesgarriak

- [“La necropolítica frente a los derechos humanos”](#) (Juan Hernandez Zubizarreta).
- [Alkarrizketa Clara Valverderi](#) *De la necropolítica neoliberal a la empatía radical. Violencia discreta, cuerpos excluidos y repolitización* bere liburuari buruz (Salvador López Arnal).
- [Alkarrizketa Saskia Sasseni](#) *Expulsiones: brutalidad y complejidad en la economía global* bere liburuari buruz (Francisco Díaz).
- [Nekropolítica](#), Achile Mbemeren (ficha y reseñas del libro).